

2025 - 2026 ikasturtea

# Azkoitia

Eskolako  
Agenda  
2030 



11 HIRI ETA KOMUNITATE  
IRAUNKORRAK



Aurtengo Azkoitiko Eskolako Agenda 2030ean bi ziklotako programari amaiera eman diogu. Iaz aukeratutako Garapen Jasangarrirako Helburua 11. izan zen: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK. Helburu zabala izanik, atal batean oinarritu gara: **MUGIKORTASUN JASANGARRIA**.

2024-2025 ikasturtean gaiaren inguruko diagnostikoa egin genuen eta horrekin batera, ondorio batzuetara iritsi ginen, lehentasun batzuk markatuz. 2025-2026an berriz, lehentasun horietatik abiatuta esku-hartze plana diseinatu eta gauzatuko dugu.

## BI ESKU-HARTZE PLAN

### ESKOLARA OINEZ

LHko 2 ikastetxeetan, Floreaga ikastetxea eta Xabier Munibe Ikastola.

### AZKOITIA BIZIKLETAZ

DBHko 2 ikastetxeetan, Azkoitia BHI eta Floreaga ikastetxea.

## LANEN ANTOLAKETA

### ESKOLARA OINEZ

laz egindako diagnostikoan, ikusi genuen herrian auto gehiegi ibiltzen zirela. Eskola inguruan ere zenbaitetan autoekin egoera arriskutsuak bizitzen ditugu. Uste dugu Azkoitiaren tamaina egokia dela batetik bestera oinez mugitzeko. Horretan oinarrituz, Eskolara Oinez joateko ekimena martxan jartzen saiatzea erabaki dugu.


Ezer baino lehen, geletan Udalak emandako herriko planoen bidez, gure etxetik eskolara egiten dugun bidea aztertu dugu. Ondoren, geletako planoak jaso eta denen bideak bateratu ditugu, horietatik ibilbide proposamena eginez.

Urtarrilak 15ean Floreaga ikastetxeko eta Xabier Munibe ikastolako ikasle ordezkariak elkartu gara, bi ikastetxeen emaitzak bateratzeko. Izan ere, bide zati handi bat elkarrekin egin dezakegu!



LHko ikasleen Foroa





Ikus dezakezuen bezala, irteera-puntu ezberdinak jarri ditugu, bide bakoitza kolore batez margotuz. Abiapuntuak dira: Anaitasuna plaza, Txalon erreka parkea, Altamira, Trenbidearen Zumardia, Santa Klara eta Floreagako auzoa. Geldiune bakoitzak ordutegi bat izango luke eta une batean, Eliza atariaren inguruan elkartuko ginatete ikastetxeetara elkarrekin iristeko.

Honekin batera, ekimenarekin bat joango den logoa sortu dugu. Horretarako, bi ikastetxeetan proposamen ugari diseinatu ditugu azkenik, bozketan bitartez, bat aukeratuz. Begi bistan jarriko ditugu elkarketa puntuetan itsatsita, zalantzarik izan ez dadin atzetik datorren taldeari non itxaron behar zaion.

Hauek guztiak prest izan ondoren, iritsi da gurasoekin hitz egiteko garaia. Horretarako prestatutako gutun baten bidez, Eskolara Oinez joateak dituen abantailak azaldu dizkiegu:

- Oinez ibiltzea garraio motarik jasagarriena da.
- Osasuna eta jarduera fisikoa hobetzen ditu.
- Gure autonomia eta ardura lantzen ditu.
- Gure arteko harremanak sendotzeko oso ona da.
- Eta eskolara alaitasunez eta erne iristea bermatzen digu.





Gutun horretaz gain, maiatzaren 7an burututako Ikasle Foroan, kartelak egin ditugu elkarketa puntuetan kokatzeko. Horien helburua, herritarrak kalean ikusiko duten eta Eskolako Bidea adierazten duten irudia zer den ezagutzea da. Kartel horietan, eskolara oinez joateak dituen onurak ikusiko dira.

Ikasleok herrian zehar modu autonomoan ibiltzeko gai gara baina hala ere, guraso batzuen laguntza beharko dugu, batez ere gaztetxoenei segurtasuna emateko. Ekimena hobeto azaltzeko eta gurasoek izan zezaketen zalantzak argitzeko, bilera bat antolatu da. Maiatzaren 12an izan da, Elkargunean.

Helburu horietaz gain, bidean lagunduko dituten guraso boluntarioak lortu nahi ditugu. Ea animatzen diren!

Ekainaren bigarren astean, 3 egunetan zehar froga egingo dugu (8an, 9an eta 10ean). Musikaz lagunduta, guziok bat egingo dugu elkarrekin eskolara oinez joateko. Horrela jakingo dugu proposatutako bideak eta elkartzeko puntuak egokiak diren edo zerbait moldatu beharra izango ote dugun.



Azkenik, bidean zehar topatuko ditugun hainbat denda, taberna edo kafetegiekin hitz egingo dugu, ekimenarekin bat egin dezaten animatzeko. Laguntzaileak izan daitezke. Horrela, gutako norbaitek beharren bat izango balu, saltokiaren erakusleihoan jarriko genukeen pegatinak esango liguke bertakoak laguntzeko prest izango ditugula. Eta horrela, Eskolarako Oinezko bideak indarra hartuko luke.



## AZKOITIA BIZIKLETAZ

DBHko ikasleok iaz egin genuen diagnostikoan herriko Bidegorria aztertu genuen. Beste arazo batzuen artean ikusi genuen herrian bizikletaz ibiltzeko puntu batzuk kritiko xamarrek zirela, arrazoi ezberdinengatik. Adibidez bidegorrik ez dagoelako, autoekin errepidea partekatu behar delako, autoen abiadurak beldurra ematen digulako...

Gaia hobeto ezagutzeko, herriko udaltzainekin ekintzak egin ditugu. Batetik, geletan bizikletaz ibiltzeko kontuan izan beharreko arauaz hitz egiten aritu gara. Eta bestetik, bizikletak hartu eta kalera irtetzeko asmoa izan dugu, herriko puntu kritikoetan nola jokatu ikasteko. Eguraldi txarragatik behin baino gehiagoetan eguna atzeratu ondoren, azkenean talde bakarrak lortu du kalera ateratzea.

Azkoitia BHIko eta Floreagako ikastetxeetako ordezkariak elkartu eta maiatzaren 7an burututako Foroan, gai horiek landu genituen. Lanketa, bi ataletan banatu genuen. Batetik kontuan izan beharreko arauak eta bestetik, herriko puntu kritikoetan ditugun zailtasunak konpontzeko moduak. Hona hemen adostutakoa:

## ARAUAK



### Txirrindularientzat

Aurkako norabidean ez ibili, kaskoa erabili, stop-ak errespetatu, zebra-bideak errespetatu (errepidetik bagoaz eta oinezkoek gurutzatu nahi badute, pasatzen utziz; eta espaloitik bagoaz, bizikletatik jaitsita, oinez), bidegorriak erabili (eta egoki erabili, hau da, oinezkoak errespetatuz), norabide aldaketa aurretiaz markatu eskuarekin, bizikleta bakoitzean pertsona bakar bat, bizikletan goazela mugikorra ez erabili.



### Autogidariarentzat

Stop-ak errespetatu, zebra-bideak errespetatu, gidatzean mugikorra ez erabili, bizikletak eta oinezkoak errespetatu.



### Oinezkoentzat

Zebra-bideetatik gurutzatu, bidegorriak egoki erabili (txirrindulariei lekua utziz), espaloiak erabili (karreterara ez jaitsi), oinez gabiltzala mugikorra ez erabili, ez sartu bizikleten bideetan (bakarrik txirrindularientzat diren ildoetan).

## HERRIKO PUNTU KRITIKOAK

ARAZOA	KONPONBIDE POSIBLEAK
<b>1</b> Floreagako aldapatik beheraka bizkorregi jaisten dira bizikletak.	Lurrean oztopo bat jartzea abiadura murrizteko.
<b>2</b> Institutura iristeko dagoen biribilgunean, goizean ikasle asko batzen dira denak bizikletaz institutura bidean, eta kaosa izaten da.	Udaltzaingoa egotea momentu puntual horietan trafikoa bideratzen.
<b>3</b> Elkarguneko tunela oinezkoentzat da, baina bidea asko laburtzen denez, bizikletak ere pasatzen dira bertatik, ezin bada ere.	Bizikletaz ez pasa ahal izateko oztopoak jartzea tunelaren sarreran.  Bizikletei pasatzen uztea baina lurrean bidea margotzea oinezkoetatik bereizteko.
<b>4</b> Elizatari aurrean bidegorria amaitzen da, ez dago oso argi zer egin behar den zati batean, eta gero berriro hasten da.	Bizikletentzako bide argi bat adieraztea eta Altzibarrekin konektatzea.
<b>5</b> San Joanera joateko ez dago bidegorririk eta errepidetik ibiltzen dira.	Bidegorri bat jartzea eta San Joanen bertan bizikletentzako aparkaleku bat gehitzea.
<b>6</b> Aparkaleku beharra ikusten da institutuan eta igerilekuan.	Aparkaleku gehiago jartzea.



Egindako lanketa honen ondoren, gure esku-hartzea zehaztu genuen Ikasle Foroan, ikastetxe bakoitzak horietako gai baten ardura hartuz:

- Azkoitia BHikoek arauz arduratu gara. Lehendik ere infografia batzuek sortzen hasiak ginen eta foro ondoren, bertan adostutako arau berriekin eginak genituenak moldatu eta gehiago diseinatu ditugu. Ondoren, udalak inprimatuko balitu, azterketa garaia pasa ondoren, herrian zehar leku estrategikoetan jarriko genituzke (zebra-bide inguruetan, bizikleta aparkalekuetan, auto aparkalekuetan, plazan, dendetan...).

- Floreagako ikasleok berriz arduratuko gara puntu kritikoak herritarrei helarazteaz. Triptiko bat egin dugu, eta bertan mapa batean arazoa sor lezaketen gune horiek adierazi ditugu. Modu berean, bakoitzean egin daitekeen irtenbide posibleak adierazi ditugu. Triptikoa udalera bidali eta bertan inprimatzea nahiko genuke. Udal eraikinetako sarreretan triptikoen multzoa utzi daitezke (udalean, kultur etxean...) beste informazioa egoten den bezala herritarrek eskuragarri izateko.

Aipaturiko esku-hartzeak ekainean burutuko ditugu kalean, azterketak amaitu ondoren.

## KONPROMISOAK

Gure aldetik ere, iaz hartutako konpromisoak berrikusi ditugu. Konturatu gara badirela hainbat arazorik gabe betetzen ditugunak baina beste batzuek, zailagoak direla betetzeko. Adibidez, garraio publikoa gehiago erabiltzea, errepidea zeharkatzeko zebra-bideak erabiltzea beti, bizikletekin gabiltzanean arauak ongi errespetatzea...



**2024-2025 ikasturtea**  
**Azkoitia**  
Eskolako Agenda 203

- 1 Ikastetxera oinez, bizikletaz edo autobusez etortzea.
- 2 Batez ere herri barruan eta ahal denean, oinez, bizikletaz edo urbanoa erabiliz mugitzea.
- 3 Oinez goazenean espaloiak erabiltzea.
- 4 Bizikleta gehiago erabiltzea, arauak errespetatuz.
- 5 Bidegorriaren erabilera zuzena egitea, oinezkoekin arretaz ibiliz.
- 6 Errepidea gurutzatzeko zebra-bideak erabiltzea.
- 7 Arriskua dagoen lekuetan kontuz ibiltzea. Ikastetxeko aldiaren behean, Txalón erreka eta gasolindegiko bidegurutzan, Correesen aurrean dagoen bidegurutzan...
- 8 Garraio publikoa erabiltzea.
- 9 Autobusean zarata gutxiago atera eta gidaria errespetatu, gauko autobusetan batez ere.

**KONPROMISOAK DBH**

AZKOITIA

## UDAL ESKOLA FOROA

Hauxe izan da ikasturte honetan egindako lana eta zuei helarazi nahi izan dizueguna. Oraingoan, mugikortasun jasangarriari egin diogu lekua. Baina pasa dira jada ikasturte ugari Eskolako Agenda programa martxan jarri zenetik. Aurtengoarekin 28. urte hurrena bete dugu!

Zuen gustukoa izan delakoan, eskerrik asko zuen arretagatik!

**DENOK BATERA HERRI JASANGARRIAGO BATEN ALDE!**

